

LA GUERRA DE NAVARRA (1512-1529): CRÓNICA DE LA CONQUISTA ESPAÑOLA

Peio J. Monteano
Pamiela, 405 or.
Iruñea, Pamiela, 2010

Paradoxikoa dirudi Historiako liburu bat *gaurkotasun handikotzat* definitzeak, areago deskribatzen diren gertakariak duela 500 urte gertatutakoak badira, kasu honetan gertatzen den bezala, baina aspaldi ohitu ginen Euskal Herrian paradoxa artean bizitzera, hainbeste ezen batzuetan horietaz konturatu ere ez garen egiten. Ondorioz, interesgarria izan daiteke gure buruari galdetzen hastea zein inpresio sortuko duen liburu honen aurkezpenak («Presentación», 15.-20. or.) *euskal gaiaren* ezagutza berezirik ez duen irakurlearengan, aldi berean Europako XVI. mendeko historiari aditua den, adibidez, iparramerikar edo japoniarren. Egia esanda, nik neuk nekez irudikatzen dut horrelako irakurle baten inpresiorik, salbu eta Asterixek hain ezagun egin duen lelo hura, *Ils sont fous ces romains!* Nola liteke duela bostehun urte gertatutakoez oraindik *borrokan* ibiltzea?

Hori da, hain zuzen ere, liburu honen gako nagusietako bat, Montearen asmoa esplikatzen duena eta, esango nuke, liburuaren irakurle errealeen ehuneko oso-oso altu batena. Zeren gaur eta hemen bizi gara gu, ez Japonian edo Estatu Batuetan, eta XXI. mendean, ez XVI. ean. Eta ondo dago interes hori, ez dago zertan ukatu, eta egileak bere kartak gora begira jartzen ditu arestian aipatu dugun aurkezpen horretan, modu eredu-garri

batean nire ustez. Eta gaiak badu tiramenik erreseina honen egilearentzat ere, jakina, baina horretan agortzen ote da liburuak? Gaur egungo tesi politiko baten (dena delakoa delarik) defentsa hutsa ote da, abilagoa edo baldarragoa, eta besterik ez?



1. irudia. *La Guerra de Navarra (1512-1529): Crónica de la conquista española* argitalpenaren azala.

Bistan da ezetz. Bistan da Historiako liburu baten aurrean gaudela, zehatz eta sakon dokumentatua ofizioari dagozkion ohitura historiografiko orokorren arabera, eta prosa akademiko bizi eta atsegin batez idatzia. Azpimarratuko dut, hau Historiako liburu bat da, ez eleberria, entsegu politikoa edo antzeko ezer. Horregatik pozik murgilduko banintz ere liburuaren *inplikazio politikoetan*, hasieran aurkeztuak eta euskarazko epilogoan (369.-371. or.) berriz ere plazaratuak, nahiago dut gaurkoan bazter utzi eta liburuari *irakurle japoniar* baten begiekin begiratzea. Uste dut ahaleginak merezi duela.

Eta begi horiekin begiratzen hasita lehenengo oharra da liburua publiko zabal batentzat idatzia dela, ez da espezialistentzat egindako ariketa akademiko estriktoa, baina egileak ondo baino hobeto konbinatzen ditu sakontasun akademikoa eta formazko atsegintasuna: horra liburuaren meritu nagusietako bat. Ildo horretan azertua da Historiografiaren formarik klasikoena berreskuratzea, alegia, kronika, eta aukera horretan trebetasunez nabigatzea. Ondorioz, liburua funtsean gertakarien kontakizun zehatz eta bizia da, ildo kronologikoa segitzen duena ia beti, han-hemenka egileak saihestu ezin izan dituen atzera-aurrera gutxi batzuk salbu. Irakurle japoniarrak, beraz, argi ikusiko du *zer gertatu zen*, zeintzuk izan ziren protagonistak eta gertakarien gurgipilaren mugimendua. Eta hori ez da gutxi, aitzitik, asko da *Nafarroaren konkista* zer izan zen ulertzeko. Baina aski da?

Oraingoan ere bistan da ezetz. Zeren batzuetan (edo agian sarri) irakurle japoniarrak ezin izango du gaintetik kendu inpresio bortitz bat, alegia, *samuraien pelikula bat* ikusten ari dela: protagonistak beti noble gerlariak dira (ia salbuespenik gabe) eta beraien menturak, borrokak, heriotzak, arrandiak, traizioak eta kartzelaldiak dira liburua betetzen dutenak, batzuetan gainera gertakariak dramatismo handia hartzen dutelarik, ia-ia Akira Kurosawaren film batean bezala (adibidez, ik. «La muerte de los héroes» atala, 290.-294. or.). Baina irakurle japoniarrak ondo baino hobeto daki Japoniaren historia ez dela horretan agortzen: samuraien kode etiko ospetsu hura (ohorea, leialtasuna, heriotza...) ondo dago literaturan eta zinean, baina Historia hori baino gehiago da; ziur aski irakurle japoniarrak irakurritza izango du, japonieraz, Bertolt Bretch-en poema hura, euskaldunon artean hain ospetsua

Mikel Laboaren kantuari (eta Joxe Azurmendiren itzulpenari) esker:

Langile baten galderak liburu baten aurrean

Zazpi Atedun Tebas hura, nork eraiki zuen?

Liburuetan Errege izenik baizik ez da ageri.

Erregeek garraiatu ote zituzten harriztar

haundiok?

[...]

Bertolt Bretch (1898-1956)

<http://eu.musikazblai.com/mikel-laboa/langile->

[baten-galderak-liburu-baten-aurrean/](http://eu.musikazblai.com/mikel-laboa/langile-baten-galderak-liburu-baten-aurrean/)

Irakurle japoniarrak, halaber, ezagutuko du Mendebaleko Europako Historiaren marko orokorra XVI. mendearen hasieran: Erdi Aroaren amaieran leinu nobleen arteko borrokek eta alderdikeriek leku utzi behar diote botere berri bati: burgesia berria, hirietan antolatua eta gero eta aberatsagoa, errege absolutu baten itzala bilatuko duena lurreko noblezia zaharraren gehiegikeriei mugak jartzeko. Beste hitz batzuetan esanda, estatu modernoaren sorreraren lehen zantzuak, monarka gero eta boteretsuago baten eskutik. Fernando Aragoikoa, *Errege Katolikoa* deitua, prozesu orokor horren eredu garbi bat da, eta horren teorizazioak Machiavelliren *Printzea*-n (1513) eta beste hainbat lanetan (adibidez, *Istorie Fiorentine*, 1520) ikus daitezke. Mendebaleko Europa osoan alde edo moldez gertatzen den zerbaiten aurrean gaude, garapena eta emaitzak tokian tokikoak badira ere.

Euskal Herrira etorritik, ezaguna da, adibidez, prozesu horren garapena Gipuzkoan XV. mendean: probintziako hiribilduek bat egiten dute leinu nobleen arteko boterea eta gerra zibil etengabea errotik mozteko helburuan, eta horretarako Gaztelako erregearen laguntza bilatzen eta lortzen dute, oso epe laburrean ahaide nagusien dorretxei lepoa mozten zaielarik. Beraz, bukatu dira gerrak eta lapurretak, aurre-

rantzean hiribilduak dira Gipuzkoan aginduko dutenak, eta noblezia zahar-
rrak bideak bilatu beharko ditu ordena
berrian integratzeko. Baita lortu ere,
baina hori beste istorio bat da, geroa-
go datorrena.

Nafarroan ere XV. mendean noble-
ziaren bi alderdiren arteko gerra zibil
klasikoa dugu Europako toki gehienu-
tan bezala: beaumontarrak eta agara-
montarrak. Baina non dago hirugarren
indarra? Non dago merkataria, artisau
eta burgesen indarra? Nafarroan no-
bleak besterik ez daude? Zer dakigu
merkataria burges gero eta aberatsa-
goez? Zeintzuk ziren haien asmoak,
haien interesak? Nork ordezkaten
zituen?

Zer esanik ez, klase burges merka-
tari berri horretaz gain, herri xehea ere
badago, Bertolt Bretchen kantatzen zi-
tuen langile xeheak, Zesarren eta Ale-
xandro Handiaren armada osatzen zu-
ten soldado soilak. Zer dakigu horiez
guztiez? Liburu honi esker badakigu
Nafarroako Mariskala ia-ia samurai
baten modura hil zela kartzelan, baina
zer dakigu nafar nekazari eta artisau
arruntez? Ikusle eta pairatzaile hutsak
izan ote ziren?

Ez dut uste, inola ere, galdera hauek
arrotzak zaizkionik Peio Monteanori.
Liburu honetan historialariaren ofizioa
bikain menderatzen duela adierazi on-
doren nekez sinistuko nuke mota ho-
rretako galderak arrotzak zaizkionik.

Beraz, irakurle japoniarrak dio kro-
nikaren etapa ederki gaindituztat emat-
ten duela, eta orain Historia Sozialaren
esparruko azterketa baten zain gera-
tzen dela. Zailagoa den esparrua, ja-
kina.

Post scriptum: Bada liburu hone-
tan atal labur bat euskararen Historia
Sozialarekin interesatuta dagoenaren-

tzat interes berezia duena: «Euskera y
la Bula de los Cautivos» (350.-351. or.).
Horra kontua: 1527an baimena eska-
tzen da Erroman Euskal Herrian bulda
bat predikatzeke («...se solicitaba per-
miso al vicario general para predicar
en el obispado de Pamplona, en Gi-
puzkoa y en las localidades navarras
de la diócesis de Calahorra la llamada
“Bula de redención de los cautivos”»).
Bulda horrek berak ez du guretzat
interes berezirik ñabardura honegatik
ez bada: «a efectos de predicación,
Navarra se dividiría en tres zonas se-
gún la lengua predominante», alegia,
Nafarroaren hizkuntza-maparik zaha-
rrenaren aurrean gaude. Análisi labur
baten ondoren Monteanoren ondorioak
erabatekoak dira: «la bula permite
establecer una especie de frontera
lingüística en una línea que iría desde
las sierras de Codés a la de Ujué» eta
«Así, pues, el euskera era, en la prime-
ra mitad del siglo XVI, la lengua hege-
mónica en el Reino y nada menos que
ocho de cada diez navarros habitaban
en el territorio donde predominaba».
Pisu handiko ondorioak, alafede!

Gure uste apalean, gertakaria argi
nabarmetzen badu ere, Monteanoren
iruzkina oso laburra iruditzen zaigu
dokumentu horrek daukan garrantziari
begira: ondorioa garbi aurkezten du,
baina analisia oso azalekoa da. Hala-
ber, eskaintzen duen erreferentzia do-
kumentala apur bat nahasgarria suerta
daiteke. Horregatik guztiagatik, esker-
garria litzateke Monteanok berak puntu
hau berriz ere beste nonbait arreta
handiagoz jorratzea, besteak beste
bulda bera osorik (edo zatirik garran-
tzitsuenetan) argitaratuz eta iruzkin-
duz. Jende askok eskertuko genuke-
lakoan nago, eta euskaraz egingo
balu, hobe.

Pruden Gartzia Isasti

